EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA — DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# Ikasgunea– Ikastetxearentzat gida

## – Erabiltzailearen gida –

**Martxoak 2019**

# AURKIBIDEA

1 Ikastetxearentzako informazioa .......... 2
1.1 Erregistroa .......... 2
1.2 Datuak aldatu .......... 3
1.3 Kalifikazioak .......... 4
1.4 Hutsegiteen justifikazioa .......... 5

# 1 Ikastetxearentzako informazioa

## 1.1 Erregistroa

Pertsona batek izena eman dezake:

- Erabiltzen ari diren NAN-a indarrean duten.
- Tutoreek aurtengo ikasturtean seme-alaba adingaberen bat izan behar du matrikulatuta edo, seme-alaba adinduna bada, honek baimena eman behar die beraien datuak ikas dezaten.
- Tutoreak sisteman ikasle bat matrikulatuta izan behar du eta hau tutore gisa agertu behar da.

Ikasleek izena eman dezakete:

- 14 urte baino gehiago baditu.

Tutoreek beraien seme-alaben informazioa ikus dezakete adingabeak baldin badira. Seme-alaba adinduna bada, honek atarian izena eman behar du, "**Nire datuak aldatu"** atalera joan eta bertan dagoen **"Adinduna naiz eta nire tutorea baimentzen dut nire informazioa atzitu ahal izateko"** aukera klickatu.




**Prozesuan arazoak** daudenean, matrikulako aplikazioan dagoen informazioa zuzena dela begiratu behar da:

- Pertsona ikasle adingabe baten tutore legala da.
- Pertsona ikasle adindun baten tutore legala da eta ikasleak baimena eman dio bere datuak ikus dezan.
- Matrikula aplikazioan, pertsona horren datuak zuzenak (NAN + Letra, jaiotze data…)

## 1.2 Datuak aldatu

**Datu pertsonak, jaiotze data edo Familia helbidea** eremutan aldaketak egiten direnean, aldaketa horiek grabatuta geratzeko zentruak **Matrikula** aplikatibotik balidazioa egin behar du.

Atarian erabiltzaileak **Gorde** botoian ematen duenean, datuek aldaketak badituzte email bat bidaliko da **ikastetxe posta elektroniko ofizialera** aldaketa hori /horiek jakinarazteko.

**Kudeaketa akademiko** aplikazioaren barruan, **Ikasleak** erlaitzan aukera berri bat jarri da, **Datu Pertsonalen aldaketa eskaerak,** hemen balidazioak egingo dira eta erabiltzaileak egindako aldaketeen onarpena edo ez-onarpena ere bai.




Pantaila honetan agertuko dira jatorrizko datuak eta aldatutako datuak, hauek gorriz daude. Aldaketak gordetzean, erabiltzaileak dokumenturen bat atxikitzen badu datu pertsonalen aldaketak ustifikatzeko hau **Dokumentu** atalean agertuko da behean.




Ikastetxeak aldaketak onartzen baditu, hauek **Matrikulan** aplikatuko dira. Uko egitekotan, erabiltzaileak jatorrizko datuak berriro ikusiko ditu **Nire datuak aldatu** familien atarian eta agertuko da mesu bat esaten egindako aldaketak ez onartua izan direla.

## 1.3 Kalifikazioak

Kalifikazioen informazioa, oharrekin batera, atarian agertuko da **"Web argitaratzea"** eremuan sartu den datatik aurrera. Eremu hau **Kalifikazioak eta Hutsegitea**ren aplikatibo barruan dago, **"Ebaluaketen datak jarri"** aukera barruan hain zuzen ere.




Familien Webgunearen Kalifikazio atalean kalifikazioetan sartzeko aukera izango da, kontzeptu ebaluagarrien informazioa, materiaren ohar orokorrak eta kontzeptuaren ohar espezifikoak.

## 1.4 Hutsegiteen justifikazioa

Aita edo ama ataritik **"Justifikazioa bidali"** botoia sakatu ondoren, ikasgaia ematen duen tutoreak edo irakasleak notifikazio bat jasoko du esanez aldaketaren bat burutu dela hutsegite baten egoeran.

Kalifikazioak eta hutsegitearen aplikatiboan, **Talde tutorizatuak eremuan**, **ikaslearen hutsegitearen zerrendan** sartzen bada, aitak, amak edo ikasleak berak bidalitako informazioa ikus daiteke **Familiaren justifikazioa** zutabean justifikatzeko.

Hutsegitea justifikatutzat agertuko da, emandako justifikazioa adoz ez egotekotan, tutoreak bere egoera aldatu behar izango du. Horretarako, **Justifikatuta eta gorde** aukeran sakatuko du.

**Gaia: Balio Etikoak**

| Data | Oharra | Justifikatua | Familiaren justifikazioa |
|---|---|---|---|
| 2016/12/12 | | ☑ | |
| Guztiak markatu | | ☐ | |

**Gaia: Frantses**

| Data | Oharra | Justifikatua | Familiaren justifikazioa |
|---|---|---|---|
| 2016/12/01 | | ☑ | |
| 2016/12/12 | | ☑ | |
| Guztiak markatu | | ☐ | |

**Gaia: Hezkuntza Akademikora Bideratutako Matematika**

| Data | Oharra | Justifikatua | Familiaren justifikazioa |
|---|---|---|---|
| 2016/12/12 | | ☑ | |
| Guztiak markatu | | ☐ | |

**Gaia: Ekonomia**

| Data | Oharra | Justifikatua | Familiaren justifikazioa |
|---|---|---|---|
| 2016/12/12 | | ☑ | |
| 2016/12/15 | | ☐ | |
| Guztiak markatu | | ☐ | |

Gorde

Berez taldeko tutoreak posta elektronikoa jasoko du falta justifikatu dela jakinarazpenarekin. Edita dezakegu nork jasotzen duen posta elektronikoa onartzeko edo faltari uko egiteko. Horretarako, sartu behar da **kalifikazio eta hutsegiterako** aplikaziora, **Aplikatiboaren aukerak** sartu **Onarpena** atalean.



**“Irakasleek faltak justifika ditzatela aukerarako parametroa”** aukera aukeratzen badugu, hutsegitea jarri duen irakasleak email bat jakinarazpena jasoko du eta hark justifikazioa onartuko edo ez du onartuko.

